

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak Txinako Jiayuguan hiriarekin ikasleen mugikortasunerako hitzarmena sinatu du

Proposamena departamentuko ordezkariak Txinara egindako bisita instituzionalean sortu zen eta gaur berretsi da

Asteartea, 2018.eko urriak 23

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak eta Txinako Jiayuguan hiriko ordezkariak ikasle eta irakasleen mugikortasunerako akordioa sinatu dute gaur arratsaldean. Gaurko akordio hau Departamentuko ordezkariak Chinara egindako bisita instituzionalaren baitan gauzatu da.

Nafarroako eta Jiayuguaneko Lanbide

Heziketak hainbat antzekotasun dituzte eta helburuetariko batzuekin bat egiten dute. Hori da, Roberto Pérez Elorza Hezkuntzako zuzendari nagusiak, eta Esther Monterrubio Ariznabarretak Lanbide Heziketako zuzendariak, Nafarroako Gobernuo departamentu ezberdinetako arduradunekin batera irailean Txinara egindako bidaia instituzionalean atzemandako alderdietariko bat. Roberto Perez Elorza eta Esther Monterrubio Ariznabarretak ordutik hezkuntza arloko arduradun taldearekin harremanetan jarraitu dute eta bisitan sortutako egitasmoei, ikasleen eta irakasleen mugikortasunean, zein proiektuak elkartrukatzeke ekintzen proposamenari forma eman diote.

Oraingoan, Jiayuguan hiriko ordezkariak izan dira Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren gonbiteari erantzunez bertaratu direnak. Ding Jushneg, Jiayuguaneko alkatea; Zhu Ming, kanpo gaietarako zuzendaria; Wang Lin, hezkuntza arduraduna; Lu Tongzhu, Lanbide Heziketako ikastetxe bateko zuzendaria eta Gan Yuchun, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bateko zuzendariak osatu dute Jiayuguaneko ordezkariak. Departamentuan, Maria Solana, Hezkuntza kontseilariak egin die harrera, "Hezkuntza Departamentuarentzako nazioarteko lankidetzak garrantzi estrategikoa duen helburu bat da, era guztietako proiektuetan murgilduta dauden irakasle, ikasle zein ikastetxeak ditugun une honetan".

Nazioarteko trukerako akordio gehienak Europa mailan egiten dira eta bide horretan, Roberto Pérez Elorza, hezkuntza zuzendari orokorrak,



Solana kontseilaria Hezkuntza Departamentuko arduradunekin eta Jiayuguaneko ordezkariarekin.

“Gansu eta bereziki Jiayuguanek emandako aukera baikorra da, izan ere Asiara eta Txinaraino iristeko aukera eman baitigu”, adierazi du.

Bide horretan akordio honek bi ikuspegi betetzen ditu, batetik Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketan harremanak sortuz, eta bestetik, “IKTen bitartez ikastetxeetako ikasle eta irakasleek online bidez egin ditzaketen bestelako ekintzak egiteko aukera ere eskaintzen die”, gehitu du Perezek. “Horrela bi aldeak komunikazio arina mantenduko dute irakasle eta teknikarien artean nazioarteko truke hau garatu ahal izateko”, amaitu du.

Sinaduraren ostean, Roberto Perez Elorza, hezkuntza zuzendariak eta Esther Monterrubio Ariznabarreta, Lanbide Heziketako zuzendariak lagundurik [Virgen del Camino IIP](#) eta [Padre Moret-Irubide BHI](#) ikastetxeetara bisita egin dute.

Mugikortasunerako hitzarmena

Irakasle eta ikasleen arteko trebakuntza teknikoa zein hizkuntzak hobetzea, espezializatutako irakasleen arteko komunikazioa bultzatzea eta ikastetxe-enpresen arteko lankidetzak sustatzea dira hilabete honetan zehar landutako lan-ildoetan jaso diren helburuetariko lau eta Jiayuguango ordezkariak eta Roberto Perez Elorza eta Esther Monterrubio Ariznabarreta ordezkari nafarrek gaur sinatutako akordioaren oinarriak.

Bihar Baluartean ospatuko den [Navarra Gansu Foroa eta Nazioartekotzearen Egunaren](#) baitan Nafarroako ordezkariak txinako Gansu probintziara egindako bisitan du oinarria gaur Hezkuntza Departamentuan sinatutako hitzarmenak.

Nazioartekotzearen Eguna, Nafarroan nazioartekotzean lan egiten duten enpresa eta agente guztien arteko harremanetarako topagune izateko asmoz sortu da eta goizean zehar merkatu txinatarrak eskaintzen dituen aukeren inguruko hitzaldiak, zein salmenta elektronikokoak gauzatzeko ildoak, hitzarmen interkulturalak, zein Txinan enpresak sortzeko legezko arloen inguruan hitz egingo da. Arratsaldean Navarra-Gansu Foroa egingo da arlo instituzionala eta enpresa arloa landuz. Enpresa arloan Nafarroako enprekin aukera komertzialak aztertzeko asmoa duten Txinako hainbat enpresek hartuko dute parte. Ordezkaritzan Jiayuguaneko kideekin batera, erkidegoko gobernuko, teknologia parkeetako zein probintziko enpresetako arduradunak izango dira.